

★ TXARANGO ★

EL COR DE LA TERRA



Aldatu daiteke mundua kantu batekin? Ezinezkoa dirudi. Naif-a. Cumbaya. Mundua politikak eta diruak gobernatzen ditu. Biak joko zikinaren sinonimo dira, interesen mendekoak eta bulego ez gardenetan hartutako erabakiak. Eta belaunaldiz belaunaldi zurrumurru horrek hor segitzen du egoten. Zeren eta "Blowin' in the wind" abestirik gabe ezin izango lirateke ulertu 1960 hamarkadan eman ziren aldaketa sozial eta politikoak. Berdin "Al Vent" edo "L'Estaca" abestirik gabe ezin da azaldu frankismoaren kontrako borroka. Trantsizio eta uko egite garaietan Montserrat Roig kazetariak idatzi zuen: "kultura da aukera politikorik iraultzaileena epe luzera". Arrazoi zuen, agian emaitzak ez dira bat-batekoak eta ezin dira erraz kontatu. Baina gero emaitza sakon horiek urteetan dira. Ovidik esan zigun dena norberaren barenean hasten dela.

Kazetaritza eta literatura izan ziren Montserrat Roig-en tresna iraultzaileak. Txarango taldearen tresnak abestiak dira eta, egunetik egunera, gero eta urrutiagora iristen ari dira eta eraginkortasun handiagoz, gainera horiek baitira edozein iraultzailearen xede nagusiak; hots, ideiak hedatu olio tantaren moduan, ahalik eta barruraino eta urrutiago, hobeto. "Benvinguts al llarg viatge" (Discmedi, 2012), lehen diskoa, garaiko pop panoramaren korrontearen aurka zihoan. Taldeak modako estereotipo horri ihes egin zion eta zegokion lurra landu zuen: muga.

Mugak bereizten ditu lurraldeak eta pertsonak. Hesi, harresi eta itxitura sinonimo dira maiz. Baina mugan ere gauzarik interesgarrienak bizi daitezke, hor daude haremana eta trukea. Geldirik edo estanko dagoena mugaren bi aldeetan dago baina mugaren bi aldeak batzeko eraikitako zubietan eraldaketaren topaketa eman daiteke. Txarango taldea muga honetan bizi da: erritmo latindar eta karibetarrak batzen dituen rockarekin, poparekin eta autore kantuairekin. Ekialdeko aireak eta gure Mediterraneo herrietako jaien artean dagoen mugetan ari dira.

Orain arte, Txarango taldearen abestiek etorkizunean zuten jarrita asmoa. Egun ere bai, baina bizitzaren ezagutza askoz handiagoarekin dabilta. Horregatik, disko berria, El cor de la terra (Discmedi, 2017). Ospeagatik munduari bira emateko aukera izan dute eta, noski, eskarmentua baliatu dute begiak hegoaldean finkatzeko: Palestina, Afrika eta gero Iparra (hemen hegoalde asko daudelako Greziako errefuxiatu guneetan). Idomeniko errefuxiatu guneetako bizi-esperientzia eta "Casa nostra, casa vostra" mugimendua diskoaren bazter guztietan soma daitezke. Adibidez, "Obriu les portes" abestian aldarrikatuko dute "jendeak eraiki dezala gehiago eta gutxiago suntu" arabiar lautea eta Joan Crossas abeslari ezagunaren ahotsarekin. "T'espero" kantua errefuxiatuei eskainitakoa da. "Resiste y grita" Eko Camp guneko ume errefuxiatuek abestu dute katalan boluntarioekin batera.

Txarango taldearen "El cor de la terra" diskoak barrura zein kanpora begiratzen du. Lurralde ezagunetan zehar doa baina zeharkaldian taldearentzat berriak diren doinuak ere ekarri dituzte, "Una lluna a l'aigua" reggaetonetik gertu dago, edo "Meravellós regal" abestian Cor Safariren laguntza izan dute, Ugandako umeen abesbatzak "Quan tot s'enlaira" abestiaren bertsioa egina zuen alde aurretik. Manu Chao nahasketaren militante sutsuak eta aitzindariak katalanez abestu du ritmikarekin "Terra endins" kantua. The Cat Empire australiarrak parte hartu dute "Som foc" bizitzaren aldeko aldarria den abestian (askatasuna da gure bandera bakarra, abestiak dakartzkigu, desira jatorrak, abesten dugu herrien bidea berriro eraikitzeko asmoarekin). Eta bukatzeko Jarabe de Palo taldeko Pau Donesek "Mil ocells" abestu du, reggae itxurako doinua.

"El cor de la terra" Txarango taldearen bizitzeko bizimoduaren finkapena da. Musikariaren kooperatiba dira eta Kataluniako talderik herrikoienetakoak egile eskubideetatik jasotako diruen erdia kolektibo edo mugimendu sozial desberdinetara bideratzen dute. Hitzak baino gehiago dira ekintzak eta hona Txarango taldearen laguntza eraldaketarako. Ez da aldaketarik egunerokotasunaren ekintzarekin ez badu hasiera.

Ba al da mundua aldatzerik kantuekin? Agian ez dago beste modurik lortzeko.



baga **biga**
MUSIKA IDEIAK
Telf. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221 PK. 48100 Mungia (Bizkaia)

elkarrizketak 690704255
ritxi@baga-biga.eus
management Euskal Herria 659 975 820
info@baga-biga.eus

UNA LLUNA A L'AIGUA

Kantuak larruazalaren suan du iturburu. Desirari buruz ari da, erakarpenaz. Azala oso sakona izan daiteke ere bai. Abesti beroa eta bizia, sortu genuenean bizi izan genuenaren pareko. Mediterraneo salsa, konplexurik eta galgarik gabekoa, udako reggaetonaren modukoa.

TERRA ENDINS

Kataluniako Pirinioetako herrixketan jaio ginen. Ama Lurrari diogun maitasuna hango arantetan sortu eta hazi zitzaigun. Gure ahotsa eta izaera hango baso eta bidexketan lehertzen da. "La vuelta al mundo" biran geundela egin genuen abestia. Herriminez, etxetik urrun jabetu ginen gure altxorraz, hantxe ikasi baikenuen oinez ibiltzen. Manu Chaorekin batera grabatu genuen, punk-merenguearen nahasketa egin genuen.

RESISTE Y GRITA

Alaitasuna erresistentzia modu bezala. Palestinako Nablus-en idatzi genuen eta Ramallahko Palestinian Circus School-en jo genuen estreinako aldiz. Urte erdi geroago Greziako errefuxiatu guneetan ereserki bilakatu zen eta horregatik "Eko camp"-eko familiekin batera grabatu genuen Vasilikako gune militarrean. Munduko bazter askotan egin dugu barre eta negar abesti honekin. Kantatzen dugunean errefuxiatu guneetako umeen ahotsak datozkigu burura. Eurengatik doa. Posible da mundu berri bat.

SOM FOC

Musika gure yin-yanga da. Munduaren gotorleku eta tresna eraginkorra. Musika da herrien taupada. Hizkuntz zaharra. Kantu honek gordetzen ditu berekin ditugun bi harreman nagusi. Gure irtenbidea da, ihesaldia, babeslekua non mundu berriak sortu eta irudikatzen ditugun. Eraikitzeko daukagun tresnarik handi eta eraginkorra, urteak daramatzagu duintasun guneak sortzen toki apurtuetan. The Cat Empire australiar taldearekin batera skaren eremura gerturatu gara.

TXARANGO:

Alguer Miquel: ahotsa
Sergi Carbonell 'Hipi': pianoa, teklatuak, akordeoia eta ahotsak
Alex Pujols: baxua
Pau Castevi: gitarrak
Pau Puig: perkusioa
Joan Palà: perkusioa
Joaquim Canals: bateria
Ivan Lopez: saxofoia
Jordi Barnola: tronpeta

roger palà + txarango + ritxi aizpuru (2017ko apirila)